




{ gertuko
planak }



Gipuzkoa / **Goierri**

*Hainbat txoko
ezezagun, mendi
eta gazta artean
deskubritzeko*


Asier Aiestaran

Goierrri izan liteke, agian, Euskal Herriko eskualde famatuenetako bat. Eta era berean, hiriburuak alde batera utzita, Aizkorri edo Idiazabal gazta izan daitezke Euskal Herri-tik kanpo ere gehien ezagutzen diren gure altxorretako batzuk. Baina errekonozimendu gehien jasotzen dituzten perla horien itzalean, badira Gipuzkoako hego-ekialdean deskubritzea merezi duten hainbat txoko. Hain zuzen ere, denboraldi honetako lehen “Gertuko planak” atalean horretan saiatuko gara: Goierri-rik ezkutatzen dituen sekretu txikiak deskubritzen.

«Goierri berran bertan izango da jendea Otzaurtera inoiz iritsi ez dena. Edo Lizarrustitik Lareora joateko ibilbidea egin ez duena. San Adrian ingurua nik uste dut nahiko ezaguna dela, baina egongo da oraindik ere norbait hara iritsi ez dena», dio Niko Osinaldek, aurten 25 urte bete dituen Goierri Turismoa erakundeko zuzendariak. Ormaiztegiarrak sorreratik dihardu bertan lanean, eta nor bera baino egokiagoa inguruko altxor txiki horiek gomendatzeko?

«Hamar mila txoko daude ez ingurukoek ez goierritar askok ezagutuko ez dituztenak: Aizkorri berran Zeraingo meategiak, Aizpeako auzo hori, oraintxe eraberrituta dagoena eta oso polita dena; aldamenean, Larraondoko zerrategia; Aia auzoa Ataunen, eta Erroipe interpretazio zentroa, asteburuetan irekita egoten dena eta landa ingurune-ko garai bateko bizitza aurkezten duena; Lazkao-tik Ataungo San Gregorio auzora Larruntza Errota ibilbidea, eta Barandiaran Museoa; Zegama eta Segura arteko ibilbidea; Seguratik Zerrainera doana... Eta hurrekin joanez gero, Mutiloa-Ormaiztegi bide berdea, orientazio joko horrekin; familientzat bai Seguran, bai Zegaman, baita Lizarrustin ere, orientazio zir-

Lehen argazkian San
Adriango koba,
Goierriko txoko
ederrenetako bat.
Bigarrenean, Niko
Osinalde, Ordiziako
Delikatuz interpretazio
zentroan.
Idoia ZABALETA - Jagoba
MANTEROLA | FOKU



kuituak, batzuk motzagoak eta besteak luzexeagoak...», bo-
ta du arrapaladan Nikok, denak aipatu nahian, baina ze-
rrenda luzea dela argi utziz.

Mendiarekin edo naturarekin lotutako planak dira gehie-
nak, eta zaku bertsuan sartu behar dira gaur egun horren-
besteko arrakasta duten kirol jarduerak ere. «Zegama-Aiz-
korri, Ehunmilak, udan egiten den orientazio proba... Baina
hor daude, era berean, Gaztaren Ibilbidea, 100 kilometro sei
etapatan; zaldian ibiltzeko aukera Ezkion eta Lazkaomen-
din, Adarpe zalditegian... Zikloturismo ibilbideak ere bai,
Euskadi Cycling programan gaude...». Osinaldek dioenez,
kirol turismoa bezeroa gehien fidelizatzen duenetarikoa da.
«Oso ohikoa da kirolari bat proba bat egitera etortzea Goie-
rrira, eta hori egiterakoan eskualde hau deskubritzea. Asko-
tan familiarekin etorriko da, baina oso lotuta ibili ohi dira
egun horietan; egiaztatuta dago familia hori, kasu askotan,
lo egin zuen leku berera etortzen dela gero oporretara».

Eta nola ez, eskaintza gastronomikoa. Arlo horretan, se-
guruenik, euskaldunontzat zailagoa izango da gauza be-
rriak deskubritzea, baina ziur ezustekoren bat aurkitu dai-
tekeela, eta edonola ere, gozamina ziurtatua dago.
«Delikatuz zentro hauxe, Ordizian –elkarrizketa bertan
egin genuen–, Europako funtsei esker eraberritua izango
dena; aurten bertan hasiko dira lanak, baina jarraituko du
izaten Ordiziako Azokaren inguruko azalpen gune bat, nola
izan diren beti Ordizia eta asteazkenetako bertako azoka in-
guruko artzain eta baserritarren bilgune. Idiazabalen, Gazta
Museoa. Beasainen, talo tailerra, Igartzan; han bertan mari-
dajeak egiten dira: gazta txakolinarekin, sagardoarekin...
Basabe Artisau Garagardoa, inguruko sagardotegiak...».

PIKKANAKA ETA OREKAZ HAZTEN JOAN DEN ESKAINTZA

Esan bezala, Niko Osinaldek hasiera-hasieratik bizi izan du
Goierriin turismoak izan duen garapena, ia ezerezetik gaur
egungo eskaintza zabalera iristeko. «1995ean plan strategi-
ko bat egin zen eskualdean, eta hor argi aipatzen zen, in-
dustriaz aparte, 1993ko krisialditik gentozelako, turismoa
lantzea zela dibertsifikazio ekonomikorako ireki beharreko
ildo bat. Garai hartan ia ez zegoen lanketarik turismo ar-
loan: hiriburuak, Zarautz, Hondarribia eta ezer gutxi gehia-
go. Horregatik, garapen turistikorako egitasmo propio bat
egin zen Goierriin eta hori izan zen abiapuntua. Ni 1997an
hasi nintzen hemen lanean. Argi ikusten genuen turismoak
beste zutabe bat izan behar zuela eskualdearen garapen
ekonomikoan, eta horretarako sortu behar genuela eragile
publikoak eta pribatuak uztartuko zituen erakunde bat. Ho-
rrrela sortu zen Goierri Turismoa 2000. urtean; 25. urteurre-
na ospatzen ari gara. Goitur Goierriko Turismo Agentzia
osatzen dute 18 udalerririk, turismo sektoreko 80-85 enpre-
sak –ostatua hartzekoak, jatetxeak, interpretazio zentroak,
museoak, zerbitzu enpresak...–, Goimen landa garapene-
ko elkarteak ere sartuta dago, eta merkataritza ere bai».

Hiru lan ildo nagusi dituzte. Lehena, 'lehiakortasuna' dei-
tzen dutena. «Hor barruan sartzen dira dinamizazioa, anto-

i jakinbeharrekoak

Eskualdeko eskaintza
turistiko zabalera
«goierriturismo.com»
webgunean kontsultatu
daiteke.

...

18 herri osatzen dute
eskualdea: Alzaga,
Arama, Ataun, Beasain,
Gabiria, Gaintza,
Idiazabal, Itsasondo,
Lazkao, Legorreta,
Mutiloa, Olaberria,
Ordizia, Ormaiztegi,
Segura, Zaldibia, Zegama
eta Zerain.

...

Webgunean hainbat
mailatako 24 mendi
ibilbide, hurrekin
egiteko 9 plan eta 7 kirol
modalitate proposatzen
dira. Baita gastronomia
esperientziak eta hainbat
gomendio ere.

lamendua, enpresen kalitatea, irisgarritasuna, teknologia
berriak... Goierriko turismoa lehiakorra izan dadin aholku-
laritza ematea; adibidez, gaztandegi batek edo sagardotegi
batek bisita gidatuak eskaini nahi baditu». Bigarrena, pro-
dutu turistikoak sortzea: «Hainbat baliabide ditugu, baina
produktu turistikoak sortu egin behar dira». Eta hirugarre-
na, sustapena eta komertzializazioa. «Inbertsio gehien es-
katzen duena da: eskuorriak egin, kazetarien bisitak jaso,
azoketara joan, nitxo eta komunikabide espezializatueta
publizitatea sartu, bidaia-agentziekin akordioak egin na-
zioarteko pakete turistikoetan Goierri sartzeko...».

Osinaldek aipatu duenez, turismoak garapen handia izan
du urteotan Goierriin, baina lortu dute eskaintza orekatua
izatea. «Azken 25 urte hauetan, turismoa lantzen hasi gine-
netik, 140 ohe izatetik 900 ohe izatera igaro gara. Goierrik
43.000 biztanle inguru ditu eta 1.000 ohe azpitik egonda
marjina dugula uste dugu. Ostatu horiek hainbat herritan
ongi banatuta daude. Hemezortzi herrietatik bik bakarrik
ez dute estatutu turistikorik, baina horietan ere badaude
proiektuak. Eta modalitateen artean ere oreka dago: izar
kopuru desberdinetako hotelak, pentsioak, aterpetxeak,
landetxeak... Eta produktu turistikoak ere herrietan banatu-
ta daude».

2015ean, adibidez, Europako sari bat jaso zuten turismo
jasangarria lantzeagatik, eta Gaztaren Ibilbidea ere eginda-
ko lanaren adibide ona da. «Gazta daukagu, bi parke natu-
ral ere bai... lotu ditzagun, beraz. Hasieran mendi ibilbide
bat zen eta gero hori apur bat jantzi egin genuen: etapak
antolatu, ostatuak zerrendatu... Betiere ezer artifizialetan
gabe. Hemen ez dituzu ikusiko hamar autobus kolpetik,
beste eskala bat da», nabarmendu du.